

## Sardinaren ehorzketarekin iragana erreta etorkizunari bidea ireki zaio indarrarekin

Goizuetan zahagi dantza, DJa eta afariarekin eman zitzaion amaiera. Larunbatean Kontuen Egunarekin luzatuko dituzte jaiak.

### URUMEA INAUTERIAK

Inauteriak amaitu dira bailaran tradizioari eutsiz sardinaren ehorzketarekin Hernanin eta mozorroen festaren azken egunarekin Goizuetan. Plazatik irten ziren Hernani Musika Eskolako dultzaineroak, atzetik penatuta herritarrek zituztela, sardina ehorztek. Kale-buelta eginda, Plazan erre zuten.

Usadio zaharrek diote, sardinaren ehorzketarekin iragana erretzen dela, eta bidea irekitzen zaiola etorkizunari, are eta indar gehiagorekin.

Goizuetan, berriz, egun potoloa izan zuten mozorroen fes-



Sardinaren ehorzketak eman zion amaiera Inauteriari.

tarekin eta arratsaldean zahagi dantza ospatu zuten. Inauteriak borobiltzeko DJa eta afaria ere izan zuten, gero.

Hori bai, nahiz eta Goizue-

tan ere bukatu diren inauteriak, larunbateko Kontuen Egunarekin luzatuko dituzte.

Bestetik, Hernanin aurtengo Inauterien balorazio bilera

egingo da bihar otsailaren 27an, 18:00etan, Biteri Kultur Etxean. Eguraldi aldetik ez da kexarik egongo, nahiz eta atzo euria izan. **K**

## Martxoaren 9a arte eska daiteke etxebizitzak alokairuan hartzeko dirulaguntzak Udalean

Guztira 219.000 euroko partida bideratuko du Udalak eta bi modalitate ditu: gazteena, 18-35 urte bitarte, eta helduena 36 urtetik gora.

### HERNANI UDALA

Etxebizitzak alokairuan hartzeko dirulaguntzak martxan jarri ditu Udalak. 2015 urtean hasi zen Hernaniko Udala ohiko etxebizitzaren alokairua ordaintzera bideratutako laguntzak eskaintzen. Dirulaguntza horiek bi helburu nagusi dituzte: gazteak, bereziki, emantzipazio bidean laguntzea eta

herrian etxebizitzaren alokairua sustatzea. Deialdia Hernaniko herrian alokairuan bizi diren 18 urtetik aurrerakoei zuzendua dago.

Dirulaguntzak bi modalitate ditu: gazteena (18-35 urte bitartekoena) eta helduena (36 urtetik gorakoena). Guztira, 219.000 euroko partida bideratuko du Udalak horretarako.

Eskaera egiteko epea zaba-

lik dago, 2020ko martxoaren 9a arte. Eskaera-orria esku-ragarri dago udal webgunean eta Herritarren Harrera Zerbitzuan. Eskaera-orria egoki bete eta beharrezko dokumentazioa atxikita udal erregistroan aurkeztu behar da.

Aurreko urteetan eskatzailer izan bazara, eta dagoeneko eskatzen den dokumentazioa Udalean badago, ez da berriro aurkeztu behar. Informazio gehiago behar izanez gero, dirulaguntzaren oinarriak udal webgunean edo hzh-n inprimaturik topa daitezke.

2018 urtean 106 eskaera jaso ziren. 35 urtetik beherako gazteen eskaerak 71 izan ziren eta horietatik 55 laguntzaren onuradun izan ziren. 36 urte edo gehiago zituzten 35 pertsonak eskatu zuten dirulaguntza eta 21 izan ziren onuradun. Beraz, guztira 76 onuradun izan ziren.

Deialdi berri honetan, oraingoz 32 eskaera daude. Aurreko urteekin alderatuta eskaera gutxi direnez, interesatuei gogorazi nahi zaie laister amaituko dela eskaera egiteko epea eta epea amaitu ondoren ez dela eskaerarik onartuko. **K**



## DBHri buruz bilera kultur etxean, gaur

### ASTIGARRAGA UDALA

Udalak herritarrentzat DBH gaiaren inguruan bilera irekia antolatu du gaur, 18:30etan, kultur etxeko areto nagusian. 17:30etan 2020ko aurrekontu partehartzaileen inguruan prentsaurrekoa emango da eta hitz egingo da DBHri buruz.

## Bilera gaur etxe hutsen inguruan

### HERNANI UDALA

Bizigune programaren barruan, etxebizitza hutsak alokairura bideratzeko bilera informatiboa egingo da gaur. Etxe hutsen jabeek zuzenduta izango da 18:30etan udaletxean eta programaren bidez etxe hutsak alokairura bideratzen dira.

## Barreterapia goizez edo arratsaldez

### ASTIGARRAGA ZILEGI ESKOLAK

Zilegi eskolak egitasmoaren barruan tailerra egingo da gaur. Maialen Viañak barreterapia saioa eskainiko du eta aukeraz egongo da goizez edo arratsaldez egiteko. 09:30etan, musika eskolaren ondoko lokalean izango da eta 19:30etan kiroldegiko aretoan. Partehartzaileek esterilla, toaila edo kojinen bat eramane behar dute.

## Nerabeek dituzten arrisku jarrerak aztergai Biterin

### HERNANI UDALA

Hernaniko nerabeek dituzten arrisku jarreraren azterketaren aurkezpena egingo da bihar, Biterin. 17:30etatik 18:30etara haur zaintza egongo da. Hernaniko Udaleko Gaztetu Haur, Nerabe eta Gazteria Arloak, Hernaniko Institutuak eta Hernaniko Lanbide heziketa eskolak parte hartu dute azterketa honetan.

**FUNERARIA ORBEGOZO BEILATOKIA**

**Asegururik ba al duzu?**  
**Deitu Orbegozora**

24 orduko tlfnoa.  
**943 33 10 20**

www.funerariaorbegozo.com

HERNANI ANDOAIN ASTIGARRAGA URNIETA GOIZUETA

Zentrala - Latsunbe 7, Hernani

- \* Zerbitzu partikularrak eta aseguru etxeekin
- \* Erresketak
- \* Lekualdatzeak
- \* Beilatokiak
- \* Eskelak, korroak...

**ESPECIALISTAS EN MARISCOS**

**MARISCOS HERNANI**

Javier Justiti  
609 674 344

Kale Nagusia, 20 - 20120 Hernani  
943 555 156

mariscos hernani

altzuetasagardotegia.com

**altzueta**  
HERNANI

Osinaga, 7. Hernani  
**943 55 15 02**

**EGURALDIA**  
**GAUR** Euria egingo du. Tenperaturak koska pare bat behera egingo du eta kostaldean 10-11 °C inguruko maximoak neurtuko dira eta barnealdean 7-9 °C ingurukoak. **Min.8° / Max.11°**

**BIHAR** Giro nahasia. Une askotan lainotza saretu samar agertuko bada ere, zenbait momentutan lainoguneak trinkotu eta euria egin dezake. **Min.8° / Max.16°**



**TAXIAK:** 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622  
**AUTOBUSAK:** Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **Etxebeste** Elkano, 9 (Hernani) **943 552087** **Gaez:** **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**



## Hernanin lehen sorospenetako eta sorosle ikastaroa emango da

DYA Gipuzkoak biztanlego osoari zuzendutakoa antolatu du martxoaren 2tik martxoaren 13ra eta Inmakuladan egingo da ikastaroa.

### URUMEA SOROSPENA

Datorren astelehenean, martxoaren 2an, Hernanin Sorosle eta Lehen Sorospenetako ikastaro berri bati hasiera emango dio DYA Gipuzkoak eta biztanlego osoari irekia egongo da.

Ikastaroaren iraupena bi astekoa izango da martxoaren 13ra arte, asteleheneetik ostiralera 18:00etatik 21:00etara. Ikastaroa Inmakulada Ikastetxean izango da, Sandiusterrri Kalea, 4.

Ikastaroak, kontuan izanik ez dela beharrezkoa aurrez eza-gupenik izatea, egunerokotasunean aurki ditzakegun arrisku egoerei nola erantzun irakatsiko du. Bihotz eta birika susperketa, zauriak, hausturak, erredurak... Ezagutza oso arruntak baina laguntza asko eman de-



Ikastaroan teoria eta praktika erakusten dira. Argazkia: DYA Gipuzkoa.

zaketen hauek, oso modu eroso eta atseginean erakusten dira eta teoria eta praktika alderdiak jorratuz.

### Sorosle titulua eskuratzeko aukera

Bestalde, ikastaro amaierako frogak gaintzen dituenak, DYA Gipuzkoak eskaintzen duen sorosle titulua eskuratzeko aukera

izango du. Matrikularen kostea, ikastarorako txostena barne delarik, 120 eurokoa da. Ikasle kopurua mugatua da, ematen den ikastaroaren kalitatea bermatzearen.

Izena emateko edo informazio gehiago jasotzeko, 943-46 46 22 telefonora deitu daiteke edo [www.DYAgipuzkoa.com](http://www.DYAgipuzkoa.com) web gunean egin daiteke. **K**

## Enaitz Goñik bi urrezko domina eta zilarra, Euskal Herriko txapelketan

Denbora oso onak eginda Espainiako Neguko Infantil txapelketarako hiru minima lortu ditu.

### HERNANI IGERIKETA

Enaitz Goñi Euskal Herriko txapelketan hiru lasterketetan parte hartzen dute eta 15 urteko Goñi igerilari gazteak sekulako txapelketa osatu zuen. Aritu zen hiru frogetan, Espainiako Neguko Infantil mailako minimak eskuratu zituen, baita udakoak ere.

Aurrena 200 bizkarrean ari-



Bi urrezko domina eta zilarra lortu ditu Goñik. Argazkia: KHP.

tu zen eta zilarra lortu zuen Marcos Simon irabazle nafar-rangandik zazpi ehunenekotara. Bere denbora 2:11.28 izan zen eta irabazlearena 2:11.21.

Garaipenak bigarren eta hirugarren jardunaldian etorri ziren eta 400 eta 1.500 libre frogetan. 400en 4:11.30 denbora egin zuen ongi nagusituz. Dis-

tantzia luzean, 1.500en, 16:35.37 egin zuen.

Datorren martxoaren 13tik 15era Oviedon ariko da froga horietan Espainiakoan.

Hiru denbora hauekin Espainian, 2004ean jaiotakoan artean, 15 denborarik onenen artean kokatzen da nahiz eta abenduan jaiotakoa izan. **K**

## Lizeaga anaiak Miguel Soroan, azpitzapeldun

Pelotari astigartarrak elkarrekin aritu dira Tolosan eta finalean 22-17 galdu zuten Hormaetxea eta Suduperen kontra.

### ASTIGARRAGA PELOTA

Eñaut eta Ekain Lizeagak ez zuten zorterik izan eta Miguel Soroan memorialeko finala galdu

zuten Beotibar frontoain pasa den igandean. Jubenilen mailako finala jokatu zuten Oier Hormaetxea bizkaitarra eta Ander Sudupe gipuzkoarraren aurka eta 22-17 galdu zuten anai astigartarrek.

Urteko txapelketarik garrantzitsuenetakoa izaten da, sona haundikoa, eta esperientzi bezala asko balio du maila bakoitzeko onenak aritzen baitira bertan. **K**

## Bi txabola sutan Akarregi inguruan

### HERNANI GERTAERA

Akarregiko baratze gune batean dauden bi txabola sugarretako larre izan ziren astelehenean. Sutea Ibai Ondo industrialdetik gertu piztu zen, 08:00ak inguruan. Ez zen kalte pertsonalik izan.

### Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

† I. URTEURRENA  
**Santiago Arnaiz Chanca**  
"Archi"  
2019ko otsailaren 26an hil zen, 60 urterekin  
- Goian bego -  
Bere senideak.  
**Urteurreneko meza, GAUR, ASTEAZKENA, arratsaldeko 19:00etan, Hernaniko SAN JOAN BATAIATZAILEA** parroki elizan. Aldez aurretik, mila esker.  
Hernanin, 2020ko otsailaren 26an

† II. URTEURRENA  
**Inazio Etxaniz Manterola**  
"Inaki"  
2018ko otsailaren 26an hil zen, 62 urterekin  
- Goian bego -  
Zein gogorra izaten ari den zuk utzitako hutsunearekin egunero bizitzea.  
Asko maite zaitugu.  
**ETXEKOAK**  
Hernanin, 2020ko otsailaren 26an

### IRAGARKI MERKEAK

**Iñigo Royo Masajista.** Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... Deitu: **943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**

**DOBERAK BEGIRALEA BEHAR DU** eguerditan gazteekin aritzeko  
Bidali zure Curriculum Vitae-a, **martxoaren 4a** baino lehen:  
[dobera@dobera.eus](mailto:dobera@dobera.eus)  
Dobera Euskara Elkarte Larramendi 11 behe 20.120 HERNANI

**ESKATZEN DA:**  
- Euskara ondo menperatzea  
- Begirale titulua edo hezkuntzarekin erlazionatutako formazioa  
- Haur eta gazteekin esperientzia

**BALORATUKO DA:**  
- Doberako bazkide izatea  
- Hernaniarra izatea

**ESKAINIKO ZAIO:**  
- Eginikizunari dagozkion soldata eta lan baldintzak  
- Kontratu formala

Baldintzak betetzen dituztenez ardurak ez direla onartzen eta bai aukeratu da